

Nafarroako menperagailuez

IÑAKI GAMINDE

Artikulu honen bidez 1989. urteko udaldian Nafarroan jasotako materialen aurkezpena burutu nahi dugu. Gure aurreko “Nafarroako bariedade batzutako perpaus denborazkoez” (FLV-56, 1990) eta “Nafarroako nominalizazioez” (FLV-62, 1993) lanen jarraipena eta amaiera izan nahi du oraingo honek. Aurrekoetan egin izan dugun legez, oraingo honetan ere material osoaren aukeraketa bat baino ez dugu aurkezten. Hala ere, uste dugu ezen hemen ematen ditugunok hain gutxi ezagutzen ditugun Nafarroako barietateen azterketarako aurreinkestatzat behinik behin balio diezaguketela, hurrengo ikerketa batzutan egitura bakoitzaren erabilpena eta hedadura geografikoa xehekiago aztertuko direlakoan.

Gizabidea da materialok jasotzeko izan ditugun lekukoak aipatzea, hemendik denei nire eskerrik beroenak ematen dizkiedala:

Urdiain: Honorata Zubiria.

Lizarraga: Juan Ezkurra.

Etxarri: Mari Carmen Goñi.

Arbizu: Josefina Berastegi.

Lakuntza: Felipe Flores.

Uhartte: Luzio Gorriti.

Oderitz: Bitoriana Biana.

Arruitz: Filomena Azpiroz.

Leitza: Miguel Zabaleta.

Huizi: Martin Martirena.

Oiartzun: Maria Milagros Ezeiza.

Hondarrabia: Gerardo Alkain, Justo Arbelaiz.

Goizueta: Luzia Salaberria.

Bera: Teresa Mariezkurrena.

Lesaka: Pantaleon Txoperena.

Etxalar: Ursula Arburua.

Sunbila: Francisca Bertiz.

Legasa: Mari Cruz Indart.
 Urrotz: Jose Juanena.
 Ituren: Cornelio Bereaurr, Quintina Azpiroz.
 Zubieta: Juanita Ibarra.
 Saldias: Sagrario Erasun.
 Ezkurra: Dionisia Balda, Juan Zabalo.
 Errazu: Begoña Agirrebere.
 Arraioz: Rosario Garrikaburu.
 Beruete: Pilar Arangoa.
 Arraras: Martina Nuin.
 Carzaron: Esteban Tellerxea.
 Etxaleku: Maria Isabel Igeltz.
 Muskiz: Estefania Setuain.
 Auza: Tomas Berasain.
 Arizu: Martín Iraizoz.

Lantxo hauek ezin inola ere buru zitezkeen kontaktuak egiten, lekukoak aukeratu eta aurkezten, askotan inkestak eurak jasaten ere, laguntzaile bikainak eduki ezik, bihoazkie eurai ere neure eskerrak: Etxarriko Jose Luis Erdozia eta Rafa Carasatorre, Arbizuko Jokin Razkin, Leitzako Rosa Sestorain, Labaie-neko Lurdes Tellerxea, Oretetako Iñaki Alberdi, Lesakako M. J. Txoperena eta Mikel Legarra, Etxalekuko Jon Aleman eta Auzako Jose Mari Berasain.

Artikulu honetan lau menperagailuren bidez agertu izan zaizkigun egituren esaldi ereduak ematen ditugu; menperagailuok -ELA, -EN, BA- eta BAIT- dira.

1. ELA

1.1. -ELA + Indikatiboa konpletibo gisa

Jarraian ikusiko dugunez, egitura hau baieztoketan, ezeztoketan, baieztoko galderetan eta ezeztoko galderetan ager dakiguke.

1.1.1. Baieztoko esaldietan

Burundako barietatea:

- uste dot etxen dola (Urdiain)
- goartu nok emengue aizela (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- esan dau etorko ala (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- goartu naiz emengua zaala (Arbizu)
- orrek esan ziek etorriko dela (Lakuntza)
- badakitt astelena dela (Uharte)

- ustiot etorriko dela (Oderitz)
- esan do etorriko dela (Arruiz)

Intzako barietatea:

- etxen daola uste dot (Huizi)
- eztuela eiñen esan dittea (Leitza)

Iruneko barietatea:

- akordatu naz eosi zula (Oiartzun)
- kontuatu naiz etorri dila (Hondarrabia)

Berako barietatea:

- erran du etorko dela (Bera)
- iduri du bazkaldu dutela (Lesaka)
- orrek erran dit etorriko dela (Arantza)
- izautu dut emengua dela (Etxalar)
- badakit astelena dela (Sunbila, Legasa, Ituren)
- emen nabari da yende asko dabilela (Saldias)
- erran do etorriko dela (Labaien)
- esan dizot gaizki daola (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- zautu dut emengoa dela (Errazu, Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- erran du torriko dela (Arizu)
- konturatu naiz emen daola (Beruete)
- bazakit astelena dela (Arraras)
- iruitzen zaire agudo iñen dutela (Muskiz)

1.1.2. Ezezko esaldietan

Burundako barietatea:

- eztuai esan ingo dila (Urdiain)
- enok goartu emen daola (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- eztet uste ekar deela (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- eneiz konturatu emen daola (Arbizu)
- eztitte esan eztubiela eiñen (Lakuntza)
- eztut siñestatzen ekar duela (Uharte)
- ezta egii etorri dela (Oderitz)

Intzako barietatea:

- eztittea esan eztuela eiñen (Leitza)

Irunekeo barietatea:

- eztiare esan ingo utela (Oiartzun)
- eztut uste ekarri ttuela (Hondarrabia)

Berako barietatea:

- ez naute erran eiñen dutela (Bera, Lesaka)
- eztut aditu eri dela (Etxalar)
- eztitt erran iñen dutela (Legasa)
- eztirate erran eztutela egiñen (Ituren)
- enaiz kontuatu zo emen ziñela (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- eztut aitu emengoa dela (Errazu)
- eztatate erran inen dutela (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- eztirete erran iñeautela (Arizu)
- eztut uste ekarri dula (Beruete)
- enaiz konturetu eztela emen (Garzaron)
- eztut aittu torri dela (Muskiz)

1.1.3. Baiezko galderetan

Burundako barietatea:

- badakizu despeitu daila ezta? (Urdiain)
- ikus dok afaldu duela? (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- esan deebie ba akaatu deebiela? (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- zuri iruitzen dakizu etorko diela? (Arbizu)
- bakizu despeittu dubiela? (Lakuntza)
- zuk uste izu etorri bear diila? (Oderitz)

Intzako barietatea:

- etorri dela esan dozo? (Leitza)

Berako barietatea:

- esan duzu etorri dela? (Saldias)

Lizagoko barietatea:

- uste duzu etorriko deela? (Beruete)
- kus duzu afaldu tela? (Muskiz)

1.1.4. Ezezeko galderetan

Burundako barietatea:

- eztezut esan iosi in dotela eo ze? (Urdiain)
- ezaiz oartu emengue naizela edo ze? (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- eztuuzut esan yoos detela? (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- eztizut esan oosi utela? (Arbizu)
- eztube ba esan despeittu dubiela? (Lakuntza)
- eztakizo akaatu duula ya? (Oderitz)
- ezteezo ezautu emengoa naizela? (Arruitz)

Intzako barietatea:

- eztakizo ni emengoa naizela? (Huizi)
- etzaa kontuatu emengoa naizela? (Leitza)

Iruneko barietatea:

- ez altzut esan txarra daola? (Oiartzun)
- esan eztiet gaizki daola ori? (Hondarrabia)

Berako barietatea:

- eztuzu uste etorriko direla? (Bera)
- eztute erran akautu dutela? (Etxalar)
- eztizut erran erosi dutela? (Legasa, Ituren)
- eztu esan bukatu dula? (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- eztatzut erran erosi dutela edo? (Errazu)
- eztute erran akabatu dutela? (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- eztuzu esan akabatu dutela? (Beruete)
- ezteek notatu emengoa naizela? (Garzaron)
- eztizut erran erosi dutela? (Muskiz)

1.2. -ELA + Indikatiboa modal gisa

Burundako barietatea:

- afaiten gendela argiya fan da (Urdiain)
- afaiyen ai gaala argiye fan dok (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- afaltzen ai gaala argiye fan da (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- afaltzen ai gaala argiya fan da (Arbizu)
- afaltzen ai gaala argii joan da (Oderitz, Arruitz)

Intzako barietatea:

- apaltzen ari diela argie yoan da (Leitza)

Berako barietatea:

- afaltzen ari giñela argiya yoan da (Etxalar)
- artu te ebasten ari dela (Ituren)

Lizasoko barietatea:

- apaltzen ai gaala yoan da argie (Beruete)
- afaltzen ai giñela argie joan da (Etxaleku)

1.3. -ELA + Subjuntiboa

Burundako barietatea:

- ataya itxi dot eztaitzala oztu (Urdiain)

Uharteko barietatea:

- aur ori arpa zazu eztaile bota (Uharte)
- ar tzazo aur oi eztittela erori (Arruitz)

Intzako barietatea:

- ar tzazo ume ori ezteilla erori (Leitza)

Berako barietatea:

- atia itxi dut eztaitezela oztu (Lesaka)
- artu zazu aur ori eztaile erori (Arantz)
- umea artu zazu eztiyela erori (Ezkurra)

Lizasoko barietatea:

- artzazu mutiko ori eztaile bota (Arizu)
- artzazu aur ori eztaile erori (Beruete)
- ertsit atarie eztaile oztu (Etxaleku)

1.4. -ELARIK

Berako barietatea:

- afaltzen ari giñelik argiya yoan da (Bera)
- afaltzen ari garelikan yoan da argiya (Lesaka)
- afaltzen ari garelik yoan da argia (Legasa)

Elizondoko barietatea:

- afaltzen ai ginelaik argie gan da (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- ori artu te ebasten ari zelaik (Arizu)

1.5. -ELAKO(Z)

Burundako barietatea:

- gaur astelena dalakos fan nok lanea (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- ezta etorri beandu dalakos (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- eztut iñ lo kafia ean dutelakos (Arbizu)
- eztuk etorri beandu delakos (Lakuntza)
- beandu etorri naiz trena galdu otelako (Oderitz)
- ezta etorri beandu delakoz (Arruitz)

Intzako barietatea:

- ezta etorri beandu delako (Huizi, Leitza)

Iruneko barietatea:

- eztun etorri trena galdu dulako (Oiartzun)
- gaur astelena delako fan gaittuk lanean (Hondarrabia)

Berako barietatea:

- berandu eldu naiz trena galdu duralakoz (Bera)
- ori ezta etorri berandu delakoz (Bera, Arantza, Etxalar, Sunbila, Ituren, Labaien)
- eztu lorik ein kafea artu dulakoz (Saldias)

Elizondoko barietatea:

- bota da sobera fite zailakotz (Errazu)
- ezta etorri berant zayolakoz (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- penatu zaide berandu torri naizelakos (Arizu)
- ezta etorri berandu dalakos (Garzaron)
- ezta torri berandu delakos (Auza)

1.6. -ELA ETA

Burundako barietatea:

- ezta etorri beandu dala ta (Urdiain)

Uharteko barietatea:

- enaiz etorri beandu izango dala ta (Uharte)

Berako barietatea:

- gaur astelena dela eta yoan gara lan eittera (Labaien)

1.7. -ELA ERE

Intzako barietatea:

- ikusi eztutela de ala izautu in dot (Huizi)

Berako barietatea:

- au ezta egoten ezta eri dalikan ere (Lesaka)

Lizasoko barietatea:

- denbora txarra daola re eztattike egon itxean (Garzaron)

2. -EN

2.1. -EN + Indikatiboa erlatiboa

Burundako barietatea:

- oyek de gu iyon gindan etxien (Urdiain)
- eman diot dirube etor dan andre orri (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- oyek dee gu yoondu gaan etxien (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- etorri an gizon oi ezta emengoa (Arbizu)
- Arbizun bizi ena gaizki dao (Lakuntza)
- etorri en gizon oi kanpoko da (Uharte)
- esei naizen silla ausiik dao (Oderitz)
- oik galdetu dii guk galdetu duun emakumez (Arruitz)

Intzako barietatea:

- oi etorri a ni eondu naizen ttikiekin (Huizi)
- yan doun maye autsie dao (Leitza)

Iruneko barietatea:

- bakotxak berak nai duna itten du (Goizueta)
- ogiya ekarri duna miñez men do (Oiartzun)
- giltza duena eztuk etorri (Hondarrabia)

Berako barietatea:

- itzin dut etorri den orrekin (Bera)
- egondu naiz zurekin solasian egondu denarekin (Lesaka)
- Beran bizi dena eri dago (Etxalar)

- guk bazkaldu duun lekuko maya autsiya dago (Sunbila)
- galdetu duten aurra ezta emen (Legasa)
- ori etorri da ni egondu naizen aurrakin (Ituren)
- etorri den gizon ori kanpoko da (Saldias)
- bazkaldu doun maya autsia dago (Labaien)
- or bizi denari il tzayo bei bat (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- ori torri de ni egon naizen aurrekin (Errazu, Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- Iruñetik ekar dutena guardatue dago (Arizu)
- Etxalekun bizi den oi gaizki dao (Beruete)
- bazkaldu dun maye autsie ziok (Arraras)
- bakotxak nai duna eitten du (Etxaleku)

2.2. -EN + Indikatiboa zehar galdera

Burundako barietatea:

- esaiyezu ia biyar etorko dian (Urdiain)
- eztakit etorri dien (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- eztakitt nungue zaan (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- esan tzazu iya biyar etorko dien (Arbizu)
- etzekiet etorri den (Lakuntza)
- ikus duzu afaldu duen? (Uharte)
- galdeiyezu ia jan duin geigo (Oderitz)

Intzako barietatea:

- eztakit etorri en (Huizi)
- esayozoa ea bier etorriko dien (Leitza)

Iruneko barietatea:

- eztakit etorri den (Oiartzun, Hondarrabia)

Berako barietatea:

- eztakit etorri den (Lesaka, Etxalar, Labaien)
- esayozu aber biar eldu diren (Saldias)
- eztakitt itten al duten (Sunbila)
- eztakit zein etorri den (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- eztakit torri den (Arraioz, Errazu)

Lizasoko barietatea:

- eztakit torri den (Garzaron, Muskiz)
- eztakit nungoa den (Beruete)

2.3. -EN + Indikatiboa konpletiboa

-EN konpletibo gisa “uste izan” aditzarekin agertu izan zaigu zenbaitetan; jaso ditugun esaldiak emateko baiezekoak eta ezezekoak bereiztuko ditugu.

2.3.1. Baiezekoetan

Berako barietatea:

- uste dut bazkaldu ten (Etxalar)

Lizasoko barietatea:

- usteut itxean dagoen (Arizu)
- nik ustet kanpoan dagon (Muskiz)

2.3.2. Ezezekoetan

Berako barietatea:

- eztut uste ekarri duten (Legasa)
- eztut uste ekarri ten (Etxalar)
- eztut uste yaus ekarri dun (Legasa)
- eztut uste ekarri dun (Ituren)

Elizondoko barietatea:

- eztut uste karri duen (Errazu)
- eztut uste emengoa den (Arraioz)

2.4. -EN + Subjuntiboa

Intzako barietatea:

- atea itxiit oztu eztein (Leitza)

Berako barietatea:

- atie itxi dut oztu eztayen (Urrotz)
- atea itxi ot oztu eztein ein (Ezkurra)

Elizondoko barietatea;

- artzazu aur oi eztayen bota (Errazu)
- etsi dut atea eztayen oztu (Arraioz)

2.5. -ENIK

Egitura mota hau oso bakanetan agertu izan zaigu, gehienetan ezezeko esaldietan -ELA agertu izan zaigu; hala ere, zenbait herritan -ENIK ere bada; adibidez:

Burundako barietatea:

- eztot aitu gaizki donik (Urdiain)
- eztiet uste ekar daunik (Lizarraga)

Uharteko barietatea:

- eztut aittu gaizki daonik (Lakuntza)
- eztozu uste etorriko deenik? (Oderitz)
- enakien emengoa zenik (Arruitz)

Intzako barietatea:

- eztot uste ekarri dunik (Huizi, Leitza)
- eztot gaizki daonik aittu (Leitza)

Iruneko barietatea:

- orrek eztik ematen orren andiya danik (Hondarrabia)

Berako barietatea:

- eztut adittu eri dagonik (Lesaka)

Elizondoko barietatea:

- enaiz oartu emen daonik (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- eztit uste akaatu dutenek (Arraras)

2.6. -ENEZ

Burundako barietatea:

- esaten dainez geo etorko dia (Urdiain)
- esan duenes etorko ttuk (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- esaten deebienes etorko die etxea (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- aaitzen denes etxie saldu iñen die (Lakuntza)
- esan duinez geo etorriko dee (Oderitz)
- esaten diinez etxee salduko dii (Arruitz)

Intzako barietatea:

- esaten duenez etxea salduko due (Huizi)
- esan duenez gero etorriko die (Leitza)

Berako barietatea:

- erraten dutenez itxia salduko dute (Bera, Ituren)
- erran dutenez gero etorriko dire (Bera, Etxalar, Legasa)
- erran dutenez etorko dere gero (Labaien)

Elizondoko barietatea:

- erten dutenez saltzen dute etxea (Errazu)
- erran dutenez sarri torriko dire (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- esaten dunes itxa etorko da (Etxaleku)
- erran dutenes sarri torko dire (Auza)

2.7. -ENEZKERO(Z)

Burundako barietatea:

- asi anezkeoz despeitazu (Urdiain)

Uharteko barietatea:

- emen gaenezkeo ikustea joaen gaa (Arruitz)

Intzako barietatea:

- asi zaenezkeo bukatu (Leitza)

Berako barietatea:

- asi duzunezkero akau zazu (Lesaka)

Lizasoko barietatea:

- emen gaudeneskeos joain ga ikustia (Etxaleku)

2.8. -EN BEZALA

Burundako barietatea:

- prepatu dot bazkaya amak esaten daun bezela (Urdiain)
- in diau ik esan doken bekela (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- lana ein det zuk esan niezun bezela (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- orrek itzitten du nai duben bezela (Arbizu)
- ein diau ik esan duken bezela (Lakuntza)
- bazkarie prestatzen du amak esan duen bezela (Uharte)
- amak esan dun bezala in du bazkarii (Oderitz)

Intzako barietatea:

- esan dezakezo nai dozun bezala (Huizi)
- bazkarie amak esaten dun bezala prestatu dot (Leítza)

Iruneko barietatea:

- ori iñen du al dun bezela (Goizueta)
- in dugu zuk esan duzun bezela (Oiartzun)

Berako barietatea:

- amak erraten dun bezala bazkariya prestatu du (Bera)
- ein du zuk erran zun bezala (Etxalar)
- bazkarii prestato dot amak esaten don bezala (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- in dugu zuk erran duzun bezala (Errazu)
- au in dut orrek in tzuen bezala (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- erran duten bezala torriko dire sarri (Arizu)
- ik esan duken bezala in diu (Arraras)
- bazkarie prestatu dut amak erraten duen bezala (Auza)

Egitura honek “-EN NEURRIAN” en balioa ere har dezake; adibidez:

Burundako barietatea:

- artzen tuben bezela jaten tube (Urdiain)
- etortzen dien bekela jarri itten ttuk (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- etortzen dien bezela jarri itten die (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- artzen ttuben bezela jaten ttu (Arbizu)
- irabazten dubien bezela gastatzen die (Lakuntza)
- iraazten duin bezala gastatzen dui (Oderitz)
- etortzen deen bezalaxe esei itten dee (Arruitz)

Intzako barietatea:

- eldu deen bezala esei itten die (Huizi)

Berako barietatea:

- irabazten duten bezela gastatzen dute (Lesaka)
- artzen ttun bezala yaten ttu (Sunbila)
- eldu deren bezala yarritzen dire (Ituren)
- eitten ttun bezala saltzen tto (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- eiten tun bezala saltzen tu (Errazu)
- ireazten duten bezala gastatzen dute (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- itxera etortzen diren bezala yartzen dire (Arizu)
- iraazten dun bezala gastatzen du (Beruete)

2.9. -EN BEZALAKOA

Uharteko barietatea:

- oosi ut gazta bat zuk ikusi uzun bezalakoa (Arbizu)
- atorra ekarri dot attek don bezalakoa (Oderitz)

Intzako barietatea:

- ekarri ot gazta at zuk ikusi ozun bezalakoa (Huizi)

Berako barietatea:

- zuk ikusi duzun bezalako gazna bat ekarri dut (Bera)
- ekarri dut atorra bat attak duen bezalakua (Lesaka)
- ekar dot gazta bat zuk ikusi dozun bezalakua (Labaien)
- ekarri dot ator bat aittek duen bezalakoa (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- karri ut gazna bat zuk kusi zun bezalakoa (Errazu)

Lizasoko barietatea:

- erosi dut gazta nai duun bezalakoa (Garzaron)
- ekar dut libru bet zuk yakutsi dezun bezalakoa (Etxaleku)
- erosi dut ator bat aittek dun bezalakoa (Auza)

2.10. -EN NEURRIAN

Burundako barietatea:

- iten tubein naurriyen saltzen tu (Urdiain)
- ibezten duen laurriyen gastatzen die (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- itten deen laurriyen saldu itten ttu (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- itten ttuben laurriyen saltzen ttu (Arbizu)
- eitten ttun leurriin saltzen tto (Arruitz)

Intzako barietatea:

- iraazten duen neurrien gastatu itten do (Huizi)
- itten ttun laurrin saltzen tto (Leitza)

Berako barietatea:

- eitten ttun neurriyan saltzen ttu (Bera)

Lizasoko barietatea:

- itten tun neurritan saldu itten du (Etxaleku)

2.11. -EN MODUAN

Egitura hau aurrekoaren ordezt erabiltzen da; adibidez:

Uharteko barietatea:

- iraahten dun modun gastatu itten do (Arruiz)

2.12. -EN BEZAIN

Uharteko barietatea:

- oi zuk ikusi uzun bezin aundiya da (Arbizu)
- au zok ekarri uzun bezin ttikie da (Oderitz)

Berako barietatea:

- zuk ikusi duzun bezin aundiya da ori (Bera)
- ori da zuk ikusi duzun bizin aundia (Legasa)
- ori zok ikusi dozun bezin andii da (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- ori zuk kusi uzun bezain aundie da (Errazu)

Lizasoko barietatea:

- zuk kusi duzun bezin aundie da (Auza)

2.13. -EN DAINA

Burundako barietatea:

- ekar dot amak esan den daina (Urdiain)

Berako barietatea:

- amak erraten dun deiña ekarri dut (Lesaka)

2.14. -EN AINA

Burundako barietatea:

- ekarri diet amak esan duena aaiñe (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- ekar det amak esan duuten aaiñe (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- ekarri ut amak esan ditten aaiña (Arbizu)
- amak esan diin aaiñe iyosi ot (Oderitz)

Intzako barietatea:

- ekarri ot amak esan dun aaiñe (Huizi)
- amak esan dun aaiñe ekarri dit (Leitza)

Berako barietatea:

- ekarri dut amak erran duen aiña (Bera)
- ekarri dot amak erran dun aña (Labaien)
- ekarri dot amak esan dun aña (Ezkurra)

Lizasoko barietatea:

- ekar dut amak esan deen aña (Etxaleku)
- amak erran dun aine karri dut (Auza)

2.15. -EN GAINA

Berako barietatea:

- ekarri dut amak erran dun gaiña (Ituren)

2.16. -EN AINBAT

Berako barietatea:

- ekarri dut amak erran dun ainbat (Etxalar)

Elizondoko barietatea:

- karri dugu amak erran dun ainbet (Errazu)

2.17. NOLA... -EN

Egitura honek erabilera bi dauzka; batetik, -EN NEURRIAN egituraren ordaina da (a), eta bestetik kausaltzat (b) har dezakegu.

a)

Etxarriko barietatea:

- nola artzen deen jaten dau (Etxarri)

Lizasoko barietatea:

- nola artzen den ala yaten da (Garzaron)

b)

Uharteko barietatea:

- oi kanpokue nola den etzekik euskeas (Lakuntza)

Intzako barietatea:

- oi kanpokoia nola den eztaki euskeaz (Leitza)

Iruneke barietatea:

- gaur nola den astelena lanea jun gaa (Oiartzun)

Berako barietatea:

- nola astelena den yoan gara lanera (Bera)
- gaur nola den astelena yoan gara lanera (Lesaka)
- ori nola den kanpokua eztaki euskaraz (Ituren)

2 . 18 . ZENBAT (ENAZ) . . . -EN

Burundako barietatea:

- zenbaitenez gorao zeen obeto ikusten da (Urdiain)
- zenbatenes geyao ekartzen doken da obe (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- zenbatenes geyo ekartzen dezun da obeki (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- zenbates gorao zoren ikusiko uzu obeki (Arbizu)
- zenbatenes geyo ekartzen duken ta obe (Lakuntza)
- zenbatenes geyo ekartzen duzun obe (Uharte)
- zenbatenez ta geigo ekartzen ozun obe (Arruitz)
- zenbat eta altuao zain ordun da ooke (Oderitz)

Intzako barietatea:

- zenbat eta gorao zain ordun oeki ikusiko zo (Huizi)
- zenbat eta bertao zauden obeki aitzen da (Leitza)

Berako barietatea:

- zenbatenez gottigo zauden obekio ikusiko duzu (Bera)
- zenbatenez goittigo eoten zaren obekio ikusten da (Lesaka)
- zenbatenez geyao ekartzen duzun eta obe (Etxalar)
- zenbatez eta goittiago zaren ikusten da obekigo (Sunbila)
- zenbatenez ta geigo ekartzen duzun obe (Legasa)
- zenbatez urbillago zauden okigo adittuko da (Zubieta)
- zenbatez gorago zauden ikusten da obekigo (Ituren)
- zenbat eta gorao daon oeke ikusten da (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- zenbatenez geyo kartzen dizun obe (Errazu)

Lizasoko barietatea:

- zenbatenas ta urbillao zauden okigo aitzen da (Etxaleku)
- zenbat eta geigo kartzen duun ordun ta ooki (Garzaron)
- zenbat eta geyago kartzen duzun obe (Auza)

2 . 19. ZERGATIK . . . -N

Etxarriko barietatea:

- yaaman zazu paraguasa zeengatik ematen deen auriye in ber deela (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- eneiz etorri zengati beandu dan (Arbizu)

Berako barietatea:

- emen paratu bear dut zergatikan ezten bertzenaz lekuri izanen (Bera)

Lizasoko barietatea:

- eamate ut guardasola zeatik eurie iñen dun (Garzaron)

2.20. YA KE (ETA)... -EN

Burundako barietatea:

- ya ke asi yaizen akaba zak (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- ya ke emen gauden ikustea fanen gaa (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- ya ke ta emen goren faen gaa ikustea (Arbizu)
- ya ke asi yaizen despei tzak (Lakuntza)
- ya ke ta in doten saldu in bearko ot (Oderitz)

Berako barietatea:

- ya ke ta asi zaren akauzo (Etxalar)
- ya ke ta emen gauden yoain gara ikustera (Ituren)
- ya ke ta etorri zaen afaltzen geldittu (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- ya ke ta emen garen gain gara kustera (Elizondo)
- ya ke ta asi zaren akaba zazu (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- ya ke ta asi zaan akabatu (Beruete)
- ya ke ta emen gauden yoain gara kustera (Muskiz, Auza)

2.21. NAI2 (ETA) EN

Berako barietatea:

- naiz etor diren auniz denak afalduko dute (Sunbila)

- naiz kanpoko den ikasi du euskaraz (Ituren)
- naiz ta danak etorri diin afalduko du (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- naiz ezten torri iguel da (Errazu)

3. BA-

3.1. Baldintzak

Baldintzetan errealak, irrealak eta iraganak bereiztu egingo ditugu.

3.1.1. *Baldintza errealak (-TEN BA-/ -KO)*

Burundako barietatea:

- ezpada listo aileatzen ezinko du ikusi (Urdiain)
- ekartzen bauuk ori etxera yaamanen diet (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- ori ekartzen bezu nik yaamanen det etxera (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- oi ekartzen badiezu eamaen dut itxaa (Arbizu)
- ekartzen badezi oi itxea iyamain dot (Oderitz)
- obie ezpadii ekartzen eztuu afalduko (Arruitz)

Intzako barietatea:

- eosten ezpadue eztu eamango (Huizi)
- ori ekartzen badiezo etxea eamaen dot (Leitza)

Iruneko barietatea:

- ezpadute ogiya ekartzen eztugu afalduko (Oiartzun)
- azkar ezpaa etortzen eztu ikusiko (Hondarrabia)

Berako barietatea:

- ori ekartzen banau eramanen dut itxera (Bera)
- ekartzen baldin banauzue ori eramein dut itxera (Legasa)
- ori ekartzen bazu ekarriko dut itxera (Ituren)

Elizondoko barietatea:

- ori kartzen baldin banaizu gain dut etxera (Errazu)
- mendire gaten badire galdiko dire (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- oi ekartzen baldin badeezte eamanen dit itxea (Arraras)

- audo etortzen bada ikusiko diot (Etxaleku)
- ori ekartzen baezu itxera eamain dut (Garzaron)

3.1.2. *Irrealak*

3.1.2.1. *-KO BA- / -KO -KE*

Burundako barietatea:

- fanko balitzake basoa galduko liake (Urdiain)
- ik ekarko bauke ori guk yaamanen giñikek (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- basoa fanko balieke galdu inko lieke (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- eualdi ona iñen baluke faen giñeke basoa (Arbizu)
- mendie joaen balie galdu eiñen littuzkek (Lakuntza)
- oi ekarriko baziñe guk iyamain giñuke (Oderitz)
- mendie joaen balee galdu eiñen leeke (Arruitz)

Intzako barietatea:

- zuk ekarriko baziñu oi guk eamango giñuke (Huizi)
- mendie yoaen balie galduko lieke (Leitza)

Iruneko barietatea:

- etorriko balitz itzeingo niken beakin (Ojartzun)

Berako barietatea:

- mendira yoaen balireke galduko lireke (Bera)
- zuk ekarko bazenuke eraunen genuke (Etxalar)
- zuk ekarko bazeunke ori guk eramain genuke (Ituren)
- mendia yoaen balii galdu iñen lieke (Ezkurra)

Lizasoko barietatea:

- mendie yoaen balee galduko littuzke (Arraras)
- zuk ekarko baziñuke eamain giñuke (Garzaron)
- diru izain banu gustatuko lireyeke ongi bizitzea (Etxaleku)

3.1.2.2. *-TEN BA- / -KO -KE*

Elizondoko barietatea:

- gaten balire mendire galdiko liezke (Errazu)
- zuk kartzen bazinu oi guk gain ginuke (Errazu)

3.1.3. *Iragana*

3.1.3.1. 0 BA- / -KO -KEN

Burundako barietatea:

- etxera fan baginda ikusiko genduken (Urdiain)

3.1.3.2. 0 BA- / -KO *indikatibo iragana*

Burundako barietatea:

- etxera fan bagiñe ikusiko giñourien (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- etxea fan bagiñe ikusko giñuben (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- itxea joan bagiñe ikusko giñien (Lakuntza)
- joan bagiñe etxea ikusiko giñuen (Arruitz)

Intzako barietatea:

- etxea joan bagiñe ikusiko giñun (Huizi)
- etxea yoan bagiñe ikusiko giñun (Leitza)

Berako barietatea:

- etxea yoan bagiñe ikusiko giñun (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- etxera gan bagine kuso ginuen (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- itxera yoan bagiñe ikusiko giñuen (Beruete)
- itxa joan bagiñe ikusiko giñun (Etxaleku)

3.1.3.3. 0 BA- *iragana* / -KO *iragana*

Berako barietatea:

- yoan izan bagiñen itxera ikusiko gunuen (Bera)
- yoan bagiñen itxera ikusiko giñun (Legasa)
- etor bazen itxera ikusiko giñun (Ituren)

3.2. BA-... BEZALA

Burundako barietatea:

- gastatzen dau abeatsa balitz bezela (Urdiain)
- orrek itzitten dik balaki bekela (Lizarraga)

Uharteko barietatea:

- orrek itziten du balaki bezala (Uharte)
- orrek gastatzen do abeatsa balitze bezala (Arruitz)

Intzako barietatea:

- orrek gastatzen do aberatsa balitz bezala (Huizi)
- orrek baleki bezala itzitten do (Leitza)

Iruneko barietatea:

- orrek itzitten du balekike bezela (Oiartzun)

Berako barietatea:

- orrek solas itten du baleki bezala (Bera, Lesaka)
- orrek aberatsa balitz bezalaxe gastatzen do (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- ori mintzatzen da baldin balaki bezala (Errazu)
- orrek gastatzen du aberatsa balitz bezala (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- ori mintzatzen da balaki bezala (Arizu)
- gastatzen du abratsa balitze bezala (Muskiz)
- orrek itten du yolas balaki bezala (Auza)

Egitura berberonen orde " -EN BEZALA" ere erabiltzen da; adibidez:

Etxarriko barietatea:

- orrek itzitten dau dakiyen bezela (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- orrek gastatzen du abiatsa den bezela (Arbizu)
- orrek itzitten do badakien bezala (Oderitz)

Intzako barietatea:

- orrek itzeitten do baakien bezala (Huizi)

Iruneko barietatea:

- gastatzen dik aberatsa den bezala (Hondarrabia)

Berako barietatea:

- orrek itten du solasa badakien bezala (Legasa)
- orrek yolas itten do dakien bezala (Labaien)

Lizasoko barietatea:

- orrek itzitten du dakien bezala (Beruete)
- orrek itten du yolas dakien bezala (Muskiz)

3.3. BA-... ERE

Burundako barietatea:

- asko etor balin badia ere danak afalduko dai (Urdiain)
- eztiot emanko belauniko eskatzen baduut ere (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- ongi ezpadoo de baliyo au (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- kotxien faten bagaa re ya ezkaa alleatzen (Arbizu)
- etorko balitz goizta re ezkiñikek alleatuko (Lakuntza)
- amarretan akaatzen baizu re beandu izain da (Oderitz)
- goiz etorriko balitzeke de ezkiñuke ikusiko (Arruitz)

Intzako barietatea:

- denboa txarra eitten bado de joango gaa mendie (Huizi)
- oiñez bada re yoan in beau (Leitza)

Iruneko barietatea:

- amarretan bukatzen bazu re beandu izango da (Oiartzun)

Berako barietatea:

- eztiot emanen belaunikatuta galdetzen banau ere (Lesaka)
- goiz etorko balitz ere ez nuke ikusiko (Ituren)
- etorri ezpada ere ezto inporta (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- ezpada torri ere eztu inportik (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- ongi ezpadao ere pastu daittezke (Beruete)
- denak tortzen badire re afalduko dute (Muskiz)
- eztiot men belauniko eskatzen badire re (Auza)

4. BAIT-

4.1. BAIT- kausala

Uharteko barietatea:

- gaur astelena baita lanea joan gaa (Arruitz)

Berako barietatea:

- gaur astelena baita yoan gara lanera (Etxalar, Legasa)

Elizondoko barietatea:

- gaur astelena baite gan gara lanera (Errazu)
- ori kanpotarra baite eztaki euskeraz (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- ori kanpoko baina eztaki euskera (Beruete)
- gaur astelena baita yoan naiz lanera (Auza)
- beandu eldu naiz trena galdu baitut (Arizu)

4.2. NOLA... BAIT-

Uharteko barietatea:

- oi nola baita kanpoko eztaki yeuskeaz (Oderitz)
- oi kanpoko nola baita eztaki iuskeaz (Arruitz)

Berako barietatea:

- ori nola kanpoko baina ezto yolasa eskuaraz eitten (Labaien)
- gaur astelena nola baita lanea yoan gaa (Ezkurra)

LABURBENA

Artikulu honetan, aurreko beste lan biren bide beretik, ELA, -EN, BA- eta BAIT-menperagailuen bidez egiten diren egitura batzuren erabilpen ereduak jasotzen dira. Esaldi eredu guztiak Ipar goi nafarrera eta Nafarroako gipuzkeraren eremuetan jasoak izan dira; hori dela eta, bide batez, egitura bakoitzaren hedadura geografikoa ere eman nahi da.

RESUMEN

En este artículo, al igual que en los dos anteriores, se recogen los modelos de uso de algunas estructuras que se realizan por medio de las conjunciones subordinadas -ELA, -EN, BA- y BAIT-.

Todos las frases puestas como ejemplos han sido tomadas del Guipuzcoano que se habla en Navarra y del Alto-navarro Septentrional; de paso, se ha querido mostrar la extensión geográfica de cada estructura.

RÉSUMÉ

Dans cet article, comme dans les deux précédents, on a recueilli les modèles d'usage de quelques structures qui sont réalisées grâce aux conjonctions de subordination : -ELA, -EN, BA- et BAIT-. Toutes les phrases prises comme exemples sont tirées du Guipuzcoan parlé en Navarre et du Haut Navarrais. On a en profité pour montrer l'extension géographique de chaque structure. Fontes 66 Art. 2.

SUMMARY

In this paper, as in the two previous ones, the patterns of use of some structures built by the subordinate conjunctions -ELA, -EN, -BA, and -BAIT are collected.

All the sentences used as examples have been taken from the Guipuzcoan Basque spoken in Navarre and from the Northern High Navarrese. Moreover, the geographical extension of each structure is shown.